

PRENTSA OHARRA

Bukatzean da HAPOaren aurrerakina lantzeko fasea; ostean ekingo zaio idazketari

Orain arte HAPOaren lehen bi faseak gauzatu dira, eta herritarren parte-hartzea izan du Oñatiko Udalak oinarrian. Halaxe jarraituko du aurrerantzean. Hain zuzen ere, aurrez aurreko informazio saioak, lan-tailerak, kale erakusketa, kontraste saioak... egin dira.

Bukatzean da Oñatiko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) aurrerakina lantzeko fasea. Zehatz esanda, egitasmoak 2018. urtean ekin zion prozesuari, aurre-diagnostikoaren bitartez; eta, ordutik, apurka-apurka joan da forma hartzen, beti ere, herritarren parte hartzea bidelagun. Bada, partaidetza prozesuarekin inbrikatu ahal izateko moduak planteatu dira ibilbidean zehar, eta Oñatiko Udal Plangintzako Aholku Kontseiluak ere presentzia nabarmena izan du. 2016an berreskuratu eta berrosatu zen batzorde hori, kolektibo berriei leku eginez (formalki eratuak ez daudenak ere barne hartuz), ehun sozialaren ordezkagarritasuna bermatu asmoz. Sektore eta elkarte ezberdinetako ordezkariak daude hartan, politikoez gain, hala nola: kirola, ingurumenaren babesa, kultur ondarea, landa eremua eta auzotasuna, lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza), gazteak, nagusiak, dibertsitate funtzionala, feminismoa eta ikastetxeak. "Halako plan bat eraikitzeak halabeharrez gura du herriko aniztasuna oinarrian izan. HAPOak hainbat sektorerengan du eragina, eta, beraz, horiek guztiak funtsezko dira planaren lanketan", azaldu du Izero Elorza Arregi Oñatiko alkateak.

Herritarren partaidetza prozesuaren antolaketa erabat lotua dago HAPOa idazteko faseekin. "Informaziorako eta parte-hartzerako zenbait mekanismo ezartzea aurreikusitako zen fase horietan guztietan, eta halaxe egin da. Hori bai, aintzat hartu beharra dago parte hartze prozesuak ezin duela zurrina izan, unean uneko egoerara eta beharretara moldatu beharra dagoela. Prozesua bera da haren jarraipena zehaztuko duena", argitu du Oñatiko alkateak. Bada, bost fasetan banaturiko prozesua da HAPOaren lanketarena, eta, gaur-gaurkoz, bigarrenetan, aurrerakina lantzeko fasean -diagnostiko fasea egin da aurretik-, da. Esan barik doa oraindik hasi barik dagoela Plan Orokorren idazketa -hurrengo fasean hasten da-. Hau da, orain artekoa ez da plana bera, HAPOa izango dena idatzi ahal izateko aurretikoa baizik. Aurrerago etorriko da zehaztasunak lantzeko eta idazteko momentua, beraz, behin-behinekoa da orain arteko faseetan jasotakoa.

Esan moduan, parte hartzea da HAPOaren lanketaren oinarri. Eta askotariko bideak landu dira hartarako: 2018 eta 2019 bitartean eginiko diagnostikorako aurrez aurreko saioak -herritarren ikuspegia ezagutzea, lurraldeari buruzko hausnarketa zabala egitea eta aurrerapen faserako ereduak prestatzea izan ziren haren helburu nagusiak-; Oñatiko maparen gainean, *emozioen mapa* egitea -lan-tailerrean zein Foruen Enparantzan jarririko karparen bidez egin zen-; kale erakusketa -esaterako, diagnostikoaren emaitza nagusiak ikusarazi ziren hartan-; hurrengo urtetarako hiri garapenari buruzko lan-tailerak -lurzoruaren erabilerak izan ziren langai eta

etxebizitza, ekipamendu publikoak, gune berdeak zein industria landu ziren alor desberdinetatik, hala nola, irisgarritasunetik, genero ikuspuntutik, naturatik...-; parte hartze prozesua oinarri -besteak beste-, Planaren idazketa taldeak landuriko alternatiba konkretuen kontrastea -horiek guztiak aurkeztu eta bat lehenetsi zen, hiri eraldaketari loturikoa-... Ostera, azken hori eginda, lau hilabeteko tartea utzi zen iradokizunetarako -legez, hiru hilabeteko tartea utzi beharra dago, gutxienez-. 15 iradokizun jaso ziren. Horien guztien erantzun proposamena landuta dauka Oñatiko Udalak, eta aurrerakinarekin batera onartu edota ezeztatu behar dira Osoko Bilkuran.

Bitartean, maiatzaren 10ean, aurrerakin faseko emaitzak aurkezteko saioa egin zen Gaztelekuan, herritar guztiei zabaldua. Horretan geratu barik, zelabaiteko lotura egin gura izan zen HAPOaren hurrengo fasearekin -balizko hainbat azpiegitura eta ekipamenduren inguruko herritarren lehen inpresioak jaso gura izan ziren-. "Ordurako, publiko eginda genituen aurrerakin faseko emaitzak, Kontzejupetik herri aldizkariaren bidez. Hartara, herritarrek aurrez ezagutzen zituzten saioaren nondik norakoak, eta, parte hartzeari dagokionez, kokatuago egon zitezkeen", gaineratu du Elorza Arregik. Behin aurrerakina Osoko Bilkuran onartuta, plana bera idazteko fasea hasiko da, eta, hor ere, parte-hartzeko aukera izango dute herritarrek.